



BOTIKA-KUTXA: EDUKIA

- Vinilo/nitrilozko eskularruak, erabilera bakarrekoak.
(ez esterilizatzeko)



- Antiseptikoak (klorhexidina, ur oxigenatua)
(gardenak, zauriaren ezaugarriak ikusteko)



- Ura eta xaboia, egokiak dira antiseptiko gisa.



- Gasa esterilak, kotoizko konpresak.
(zauriak garbitu eta hemorragiaren gainean zapaltzeko)




- Bendak.
(hainbat tamaina)



- Esparatrapua, apositu itsasgarriak.
(hobe hipoalergikoak badira)



- Punta kamutseko aizurrak
(azaleko lesioak ekiditen dituzte)



- Erabili eta botatzeko pintzak



- Termometro digitala



- Izotz sintetikoko poltsak.
(ondorio analgesikoa eta antiinflamatorioa)





BOTIKA-KUTXA: GOMENDIOAK ETA EDUKIA

Gure **gomendioak**, indarrean dagoen legeriaren arabera, honakoak dira:

- 1) BETI galdetu ea alergia-rik ba ote duen. Zertarako?:
 - Botika-kutxako elementuren batekiko alergia den jakiteko, eta hala, hura erabiltzea ekiditeko.
 - Alergia duela baldin badaki, egiaztatu ea berarekin daraman alerjiaren kontrako antidotoa.
- 2) Botika-kutxa eskuragarri izanen da, eta iturriko ura duen konketa batetik hurbil. Langile guztiek jakinen dute non dagoen.
- 3) Erraz garraiatzekoa izanen da.
- 4) Haren ondoan edukiaren **zerrenda** jarriko da. Eta orri zuri bat, erabilitako materiala eta data idazteko.
- 5) **Pertsona arduradun** bat egonen da, iraungitze data zaintzeko eta zerbait erabili denean birjartzeko.
- 6) Komenigarria litzateke **aldian aldiko errutina** ezartzea (adibidez, astean behin) botika-kutxa eta zerrenda berrikusteko.

Edukia:

- Ura eta xaboia.
- Erabili eta botatzeko eskularruak
- Desinfektatzaileak, antiseptikoak.
- Gasa esterilak.
- Kotoizko konpresak.
- Bendak.
- Esparatrapua, apositu itsasgarriak.
- Aizturak.
- Erabili eta botatzeko pintzak.
- Termometro digitala.
- Izotz sintetikoko poltsak.